

### Haurreskolak Partzuergoko Mahai Negoziatzailea

HaurreskolaK Partzuergoa urtez urte pribatizatzen ari den zerbitzua da. Langileen eta Haurreskolen etorkizuna kolokan dago. Matrikulazioaren bilakaeraren **datu ofizialak** ikusi besterik ez daude: 2012-2013 ikasturtean sare publikoan 6954 ume matrikulatu ziren bitartean, 2014-2015 ikasturtean 5400 izan ziren (-22%). 2017ko irailean Haurreskolak Partzuergoko **plazen erdia hutsik** zegoen, 4555 haur matrikulatuta baitzeuden. Gako horietatik abiatuta bi marra gorri ezarri zituen STEILASEk hasiera hasieratik:

- 1.-Langileen egonkortasuna bermatzeko **oposaketa deialdia**.
- 2.-Haurreskolen etorkizuna eta, ondorioz, gure lanpostuak bermatuko dituen **bideragarritasun plan estrategikoa**.

Eta horrela eskatu diegu, behin eta berriz, Enpresari eta Eusko Jaurlaritzari. Atzo LABek Enpresarekin **sinatutako akordioak** hauxe jasotzen du:

- Hezitzaileentzat behin-behinekotasun tasa jaisteko **asmoa eta azterketa**.
- Bideragarritasunari begira **hausnarketa** planteatzea.

Asmoa, azterketa, hausnarketa... inolako **neurri zehatzik ezta bermerik** ere. STEILAS sindikatuak Administrazioari eta Hezkuntza Sailari eduki hauek **garatzea eta zehaztea eskatzen die**, aurrera eramango direla ziurtatzeko **bermeak** behar baititugu:

1.- Zeintzuk izango diren **bideragarritasunaren izenean** emango dituzten pausuak. Besteak beste: **doakotasuna** helburu duen bidean kuotak merketzeko konpromisoa, **matrikulazioa** igotzeko eta hezitzaileen **desplazamenduak** ekiditzeko aukerak eta 0-2 etapako **sare publikoa bultzatzeko** konpromisoa.

2.- Hezitzaileen egonkortasuna bermatzeko **LEP deialdia**. Noiz egingo den eta zenbat plaza eskainiko diren **zehaztu** beharko lukete.

Hori horrela, STEILASEk ez du akordio hori sinatuko. Hau ez da mobilizazioetan izan ditugun aldarrikapenak jasotzen dituen akordioa eta borrokan jarraituko dugu funtsezko akordio baten alde.